



**AZURMENDI, Joxe**

**Azken egunak Gandiagarekin: adiskidearen heriotzaren aurrean bakarriketak**

Donostia : Elkar, 2009. – 489 or. ; 24 cm. –

ISBN: 978-84-9783-734-7.

Joxe Azurmendik Bitoriano Gandiagari buruz argitaraturiko idazki guztiak interesgarriak zaizkigu: *Elorri*ko ataltxoei egindako sarrerako ohar txoak, *Hiru gizon bakarkaren* bigarren argitalpeneko “Epilogo” (185-214. or.) eta *Adioren* “Hitzaurre moduan” deritzon sarrera (7-23. or.), “Naturaren poeta” artikulua (*Egunkaria*, 01.02.22, 41. or.) eta egun bereko *Garan* iruzkina (60. or.), *Elkarren* aldizkarian, 04.12.01ko elkarrizketa... Azurmendi da Gandiagari buruz iritzirik egjazkoena transmititzeko tresnarik egokienak dituen: literatura, filosofia zein teologia aldetiko ikasketa (galdera) asko eta sakonak, baita Gandiagaren erretraturik onena egiteko distantziarik zehatzena ere: Gandiaga eta Azurmendi, urtetan, elkarrekin bizi izan ziren Gandiagarentzat espazio naturala (ia bakarra) bihurtu zitzaion Arantzazuko komentu eta giroan, non elkarren arteko mintzaldiak (lanak eta konfidentziak) ugariak izan omen ziren: “Gertutik bai –aitortzen digu Joxe Azurmendik-, baino asko ez nuke esango ezagutu nuenik” (*Elkar*, “Autorearekin solasean”, 01.12.04). Aipagai dugun liburu honetan Gandiagari zuzenduriko orrialde guztiak bilduz gero (5-6, 7-63, 71-85... or.), beraiek bakarrik osatuko lukete liburu interesgarria (ezinbestekoa Gandiagaren zaletuentzat).

Liburu hau, haatik, zerbait gehiago da. Kontrazalean argitzen digunez, oraingo honetan, “libururik pertsonalena ondu du Joxe Azurmendik”. *Azken egunak Gandiagarekin* liburu hau Joxe Azurmendiren libururik pertsonalena? Idazle honen gaineko iritzia burutzeko tresna aproposa eta distantzia egokia dituen Pruden Gartzia (elkarren lagunak dira eta) ohararazi dit, sakonean, liburu hau ‘bidaia’ liburu dela: bai Gandiagarena: “Gandiaga ‘itzuli’ bat da, odisea nahasgarrietatik etxe zaharrera itzulirikoa” (346. or.), bai Joxe Azurmendirena berarena ere: kanpoko bidaia: Arantzazutik, Erromara, Alemaniara..., eta barruko bidaia ere: tradizioko sinesmenetik... nora?... baita, beste ikuspuntu batetik, azken urteetako Euskal Herriaren erlijio (sinesmen) bidaia ere: “Gandiagaren barne (Gandiagaren liburuetan) eboluzioa jarrai bailiteke, gerra osteko Euskal Herriaren eboluzioarekin batera” (433. or.).

Bai Azurmendi, bai Gandiaga inguru beretik abiatu ziren: “Sinesten neban Misterioa” (*Elorri*, 79), kultura (ikasketak) eta erlijio inguru, neurri batean, desberdinetan, haatik; bion arteko urte diferentzia hamahiru urtekoa izan baitzen. Alabaina bide diferenteetatik *antzeko oztopoak* gaudituz behar omen dituzte batak zein besteak, ematen diguten baino hurbilago dauden harane(t)an iristeko (346-356. or.). “Ez naz leenagoko / zalantza gabeko / potingo argia. / Lur ta miñez nago” (*Elorri*, 130), azaltzen digu fraideak (Gandiagak), eta filosofoak (Azurmendik): “Egia aitortzeko, ez dakit sinesten al dudan, ez dudan, edo zer egiten dudan” (*Berria*, 09.09.17).

Abiapuntu beretik xendra ezberdinetan zehar helmuga beretsura iristen den bidaiaren intuizioak azaltzen digu nola Gandiagaren azken orduen gaineko liburu hau Azurmendiren libururik pertsonalena izan daitekeen. Azken buruan, Gandiagaren aitzakiez, Azurmendik bizitzaren oinarritzko galderei buruz bere kezka pertsonalak ere azaltzen baitizkigu liburu honetan. “Zertan datoz bat eta zertan dira desberdin Gandiagaren (sinesmen) ibilbidea eta zurea” galderari honela erantzuten dio Azurmendik: “Liburu osoa hori besterik ez da, nik uste” (*Berría* 10.01.16).

Esanenez Joxe Azurmendi liluraturik dagoela Bitoriano Gandiagarekin: “Gandiaga niregan baitago” idatzi zuen urteak direla. Lilura hori ez da “basati onak” munduan zehar ibilitako gizon jantziarengan sorrarazten duen miresmen erromantikoa, are eta gutxiago Maisu Juan bizargin-osagille-euskaldun lantzakarengan Peru baserritar landuak (adjektibook Mogelenak dira) eragindako harridura (horretaz zer edo zer nabari badezakegu ere). Joxe Azurmendik Bitoriano Gandiaga, “heriuak handi txipiak bardintzen” dituen orduan, berraurkitzen du eta beraien bion arteko sinesmen esperientzia diferenteak harritu egiten du filosofo laguna... eta, harridura horrek ukituta, Azurmendi abiatzen da sinesmen esperientzia bi horiek aztertzen, XX. mendeko filosofo-literato-teologo askoren plan-teamenduekin kontrastatuz bide nabarreak: batetik, antzinako kulturaren (erlijioaren) erroitik etorritako baserritar olerkari isil landua eta bestetik, Europako unibertsitate aurrekoienean aritutako filosofo teologoa. ¡A zer para!

Argi da, haatik, Jainkoarekiko giza esperientzia distira askodun prisma besarkatu ezina zaigula eta aztertzaileak lorratz askori jarraitu beharko diola: izadian edo naturan hasita: “Natura guretzat ere hor dago, baina jakin egin behar da Naturan egoten”. Naturak mezurik ote du ala hutsik ote dago?: “Modernitateagaz berehala galdu dugun gauza bat zeruaren humanoa izan da, munduaren jainkotasuna gero” (21. or.). Naturan egote hori zer-nolakoa da: ikustea ote, entzutea agian?: “Gandiagak bere sentsu guztiekin ‘entzuten’ du Natura... Gandiaga entzulea eta ikuslea da” (27-28. or.). Eta naturatik amarengana (Orbelaungo Anastasiarengana eramaten du Bitoriano) eta Euskal Herria sakonean sentitzera, eta (g)izaki guztiekin etika (zintzotasuna) eraldatzera, eta giza pobretasuna deskubritzera (existentzialistak, bitartean, giza mugatasunarekin zeuden liskarrean) eta pobreekiko (giza askatasun zein salbazioarekiko) konpromiso eta miresmenera: “Gandiagak ez du Arantzazuko debozioa bakarrik antzaldatu, Ama Birjina eta santutegia ikusteko moldea” ere (52. or.)... eta hortxe Jainko dei genezakeen norbait esperimintatzera... Bide batez, Azurmendik kontatzen digu nola berak eta emazteak Greziara (nora eta metafisika sortu zuen lurraldera) joanak ziren eta hantxe ere mitoekin topo egin zuten (“Zer da mitoa?”, 71. or.). Eta hortxe planteatzen zaigu ‘mitoen’ eta ‘arrazoia’ren arteko lehia, tradizionalismoaren eta modernitatearen arteko ohiko eztabaida soila ez dena, nire ustez, protagonistak, hots, Gandiaga eta Azurmendi beste koordenatuetan baitaude: “Kulturalki gu hibrido batzuk garela esango nuke” (106. or.).

Mitoak, erlijio mitoak zehazki, sakonean, gezurrak ote dira? Zergatik mitoak bai eta guztiok gizakien ispilu zehatz gisa jotzen ditugun Cervantesen *Kixotea* edo Shakespearen tragedia harrigarriak ez? Noiz ikasiko dugu bereizten mitoen mamia eta eskola? Aristotelesen metafisikaz fidatzen jarrai dezakegu, Einstein, Kant edota fisika kuantikoren argibide irekiak ezagutuz gero<sup>1</sup>? Eta gauzak horrela, non bilatu, non oinarritu bizitzentzua?

1. SWIMMA, B. *The Hidden Heart of the Cosmos: Humanity and the New Story*, Orbis, Maryknoll (NY), 1996-100. or.: “En la base del universo hierve la creatividad... Empleo la expresión ‘abismo que lo nutre todo’ como una manera de señalar este misterio que está en la base del ser”.

Ikuspegi horretatik martxa hartzen du liburu honek: batetik euskal mitoan sakonduz gizakien mugaraino hurbildu zen olerkari 'ezjakina' eta bestetik arrazoitik itzultzen den etxeko zein kanpoko literaturan, filosofian eta teologian aditua den pentsalaria (beraien 'espezialitatean' bikote hornituagorik ote euskal munduan?). Hala ere, Azurmendik azpimarratzen digunez, hausnarketa maila bi daude, horren modan dagoen arrazoiak edo arrazoiak gain dagoen 'zer' (nor?) horretaz. Bata da, filosofo/teologoaren hurbilketa orokorra, eta bestea da Gandiagaren hurbilketa espezifikoa: "Kuri osoa da: judu-kristautasuna esentzialki mito historiko bat da beste ezeren aurretik; eta horixe da Gandiagari arrotz gelditzen zaiona. Zein da Gandiagaren egiazko barne mundua?" (85. or.). Galdera interesgarria, batik bat, euskaldun guztiei (euskal herrikoen gehiengoari? gutxiengo baina zati adierazgarri bati?) luzatzen badiegu.

Martxa hartuz gero, Azurmendik erlijio galderarik oinarrizkoenei ekiten die: Jainkoari: "Zer da sinestea? Zer ote da Jainkoa" (93. or.), Jainkoa versus askatasuna dilemari (350. or.), Komunitatea eta Jainkoa bikoteari (378. or.), mundua sortzeari (197-209. or.): "Non-dik gatoz? Nora goaz?" bezalako galderei (239. or.), 'herria' deitzen dugun 'horri', bizitzaren zentzuari: "Eta zeri deritzogu hemen zentzua?" (141. or. eta j.), bizitzaren balioei: "Nola sortzen dira balioak?" (187-190. or.), hilondokoari: "Izan ere, arima zer da?" (211. or. eta j.), infernuari (248-260. or.), errealitaterari: "Zer deritzogu errealitatea?" (261-275. or.)... eta batik bat, "Gaizkiaren eta Jainkoaren arazoa den" heriotzari (211-260. or.) zabaltzen dio hausnarketa, modernitateaz geroztiko literatoen eta filosofoen erantzunak aztertuz eta komentatuz: Zola, Voltaire, Tolstoi, Pio Baroja, Unamuno, Basterra... eta filosofoen: Pascal, Descartes, Marx, Engels, Nietzsche, Russell, Heideggerren... erantzunak aztertuz eta komentatuz, behin baino gehiagotan, 60-70eko hamarkadetan, Arantzazun sorturiko giro intelektualetik ikusita: "Gandiagak ongi ezagutzen zituen filosofoen istiluak (beharbada ez filosofia modernokoak, baina klasikoak bai)" (125. or.)... Europako literato eta filosoforik distiratsuen parean (gehienak agnostikoak edota ateoak), Gandiagaren (eta, behin baino gehiagotan, Manex Erdozaintzi, beste 'sanfrantziskotar' baten) fedea, inondik inora, ezjakin batena ez dena: "Gandiagaren pertsona eta obran ikuskizunik ikusgarrietako bat, eta guztietako haren eboluzioa da" (123. or.). Azpimarragarria zaigu, gai sakonetan, Azurmendik 'herria zer den' gaia ere sartzea: "Zein herri da Gandiagaren herri xumea?", non Baroja, Galdós, Clarin, Unamuno, Basterra eta abarren jarrerak, Gandiagaren jarrerarekin kontrastatu egiten ditu (389-431. or.). Argigarria.

Horixe da liburu honen joan-etorri interesgarria. Batetik, modernitateko filosofo zein literatoen jarrera kritikoa eta, beste batetik, esperientzia alternatibo aberatsa duen jatorrizko euskaldun batena: "Gandiagaren fedea eta Jainkoa, niretzat, arrotza ez, baina bere ebidentzia masiboarekin kasik ikaritzen ninduen zerbait zen. Errealismo ikaragarrikoa. Berak asmatzen zuen, egiten zuena -libertate guztiarekin baino areago, asmatzearen poz guztiarekin- beti berregiten. Kredoak asmatzen" (135. or.).

Joan-etorri horretan, Azurmendik arestian aipaturiko oinarrizko erlijio galderei emandako erantzunak, batetik, modernitateko *status quori* dagozkionak, eta bestetik, Bitoriano Gandiagak emandakoak kontrastatu egiten ditu. Kontraste horretan Azurmendi endredatua geratu da. Horrexegatik, agian, hasieran azpimarratzen zitzaigunaren arabera, hauxe izan daiteke Azurmendiren libururik pertsonalena:

(Jainkoagan sinesmenaren) Ez aldeko eta ez kontrakoekin gelditzen ohi izan naiz gustura... Arazoa honen aurrean gure artean askok nahiago du orain ez arimaz eta ez Jainkoaz batera ez pentsatu. Baina ez pentsatzea ez da ni ase nitzakeen aukera... Beharbada galdera ez baita Jainkorik badagoen, bazik eta nola ulertu zertan datzan (*Berria*, 09.09.17).

Kontraste hori, hain zuzen, dugu liburu honen giltzarria. ahaleginak ahalegin, misterioaren aurrean (Jainkoari eta, bide berean, gizakiari dagokien misterioaren au-

rrean)<sup>2</sup>: “Ez dugu pentsatuko Einstein Orixeren amona baino parada hobean dagoenik” (*Berria*, 10.01.16).

Ez da liburu erraza. Galdera eta erantzun asko (larregi, nonbait) eta filosofo, literato, artista askoren (larregiren?) erreferentziak, aipuak, iruzkinak... Niri gustatuko zitzaidekeen autoreak, beste pentsalari askoren azalpen ugariak gain, bere jarrera, pentsaera, eta apustu edo esperientzia pertsonalaz luzeago aritu balitz. Azurmedik, gehienetan, hausnarketaren arbitroa dela dirudi, pertsona inplikatu bat baino. Baina, hala eta guztiz ere, liburua aberatsa da.

Azurmendia, ohi bezala, iturri askotara joan zaigu uretan. Autoreak liburu honetan zazpi ahalak egin dituela esan genezake. Esfortzu handi hori, batetik mesedegarri zaigu (lagun batek irakurri eta bildu baitzizkigu pentsalari askoren idazkiak) baina, bestetik, liburuaren irakurketa zaildu egiten du. Ez da hain zaila, saiakeraren egitura, hots: modernitatearen eta Gandiagaren kontrastea eta erritmoa kontuan hartzen baditugu. Baliteke astiro irakurtzea gomendagarria izatea, baina bazterrean ezer utzi gabe.

Dena den, gaia aztertu eta aurkezterakoan, homogeneizatze falta nabaritzen dut, ulerkerak errazten duten laburdura moduko sailkapen interesgarriren batzuk agertzen bazaizkigu ere (187, 344... or. ). Atal laburragoak eta homogeneoagoak egin izana eskertuko zuen irakurleak: zergatik 85 orrialdeko atal berean: arimaz, heriotzaz, gizatasunaren espezifikotasunaz, infernuaz, errealitateaz aritzea? Zergatik Jainkoaz aritzea atal ezberdinetan? Liburua ezin zitekeen irakurgarriagoa izan atala laburrago eta homogeneoagoak izan balira? Hala eta guztiz ere, liburu handi baten aurrean gaude, ez soilik orrialde kopuruari begira, mamiaren garrantzia eta sakontasunari begira ere bai eta handitasun horrek tiraldiari eustea eskatzen dio irakurleari. Merez du eta.

Berez luze, aberats eta konplexua den liburuari autoreak epilogo bat gehitu dio, Arantzazuko lehenengo poeta modernoa izan zen Antonio Arrutiren olerkigintzari eskainitakoa. Ez dio epilogo horrek liburuko gai nagusiari ezer berririk ematen. Horrek ez du esan nahi interesgarria ez denik. Besteak beste, euskal ‘arazoa’ delakoaren kontrako topiko zaharrak eta (ohiko) alderdikeriak aspaldikoak direla erakusten baitigu, baita Gandiagari olerki bideak ireki zizkion Antonio Arrutiren olerkien gaineko azterketa polita eta iradokitzailea ere. Irakurlea ez nahasteko, epilogo horren irakurketa beste une baterako utzea gomendatuko nioke irakurleari. Nahiko eta sobera du epilogoaren aurreko atal interesgarriekin.

*Sebastian Gartzia Trujillo*

---

2. SIBELIUS: “El abismo de mi espíritu no cesa de invocar con un grito al abismo de Dios. Dime, de estos dos abismos, ¿cuál es el más profundo?”.